



BARRIO OLANO, M.; BERASAIN SALVARREDI, I (arg./eds.)

Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2013.

208 orrialde.

ISBN 978-84-7907-696-2

Jasokundeko parrokian dagoen Ama Birginaren Koroatzearen erretaula dugu gaur egun Erreteriak kontserbatzen duen ondarearen adierazle nagusi bat. Ezbaidarik gabe, garrantzitsu zein politenetakoa da. Azken urteetan bere inguruan egin den zaharberritze prozesuaren ildotik, eta objektuaren beraren hobekuntzaz gain, *Albayalde-Conservatio* S.L.-ko buru diren Maite Barrio eta Ion Berasainek maisuki koordinatu zein argitaratutako liburua dugu horren guztiaren emaitza. Bere 208 orrialdeetan zehar erretaularen inguruan burutu diren lanak eta eskuhartzeak jaso diuzte. Bruselako Institutur Royal du Patrimoine Artistique eta hiri horretako Université Libre de Bruxelles-eko adituen laguntza izan dute horretarako, eta hauen ezagutzek maisuki osatu dute lana.

Argitalpenean zehar bildu diren testuek ohiko alderdi historiko-artistikoak jorratzen dituzte. Azalpen ezberdinek hamaika argazki, irudi zein taula ezberdinen laguntza dute eta hala, liburuan zehar aditzera ematen diren ideiak askoz ulergarriak suertatu dira tresna horiekin guztiekin. Maite Barriok eta Ion Berasainek idatzitako artikuluetan zaharberritzea baino lehenagoko eta ondorengo egoerak ikus daitezke; erretaula zein egoera kaskarrean zegoen eta horri nola aurre egin zaion. Myriam Serck-Dewaide-k arlo horretan izan den

garapenaren azalpenak lagunduta, primerako paragrafoak osatu dituzte irakurleak lanaren balorazioa egite aldera.

Ildo honetatik hainbat alor azpimarratu nahi genituzke. Esan dugun bezala kondaira kutsua du artelan honek. Gamonek XVIII. Mende amaieran jasotako kontakizunei jarraituz, Ingalaterrako erregin Katalina Aragoikoaren neskame izandako Maria Juan Lezokoak ekarri omen zuen herrira, handik bueltan Endrike VIII.-aren emazte zenak oparituta. XVI. mende hasierako eta jatorri atzerritarra duen pieza dugu, beraz. Ideia hau ardatz hartuta, liburuak bi gauza argitu nahi zituen: batetik, hipotesi hori frogatzea eta bestetik, erretaula non egina zen jakitea. Izan ere, hasieratik argi zuten ikertzaileek kutsu flandriar nabaria zuen lana zela. Nola iritsi zen orduan Flandriatik gurera? Katalina Aragoikoak han egitea pentsatu al zuen eta Maria herrira bueltatzeko asmoa agertu zuen honi oparitu al zion?

Horretarako, bai Maitek zein Ionek erretaula garaiko testuinguru ekonomikoaren baitan txertatu dute, eta hau oso kontutan hartzekoa da. Izan ere Errenteriak etengabeko harremana zuen Europa atlantiarrean zein mediterraneoan zehar zeuden merkatalgune garrantzitsuekin, tartean Ingalaterra eta Flandria. Honela, argi geratu da XVI. mendeko Errenteria garaiko merkatalbide internazionaletan buru-belarri sartutako gunea zela; gure auzotarrak hamaika lekutan izan ziren eta oihalak, mihiseak, garia, larruak edo bestelako merkatalgaiak ez ezik, artelanak ere ekarri zituzten. Sarrera gisa Maitek, Ionek eta Catherin Périer-D'Iteren-ek egindako artikuluetan argi geratu da, gainera, Flandriako erretaulak Europan zehar oso preziatuak izan zirela; beraz, gure artean halako artelana izatea ez zen guztiz ezohikoa.

Zoritxarrez, datu gabeziaren ondorioz saiakera antzua izan da Maria Lezokoaren aztarna jarraitzea; baina horrek ez ditu egileak kikildu, beste hipotesi batzuk ere planteatu baitituzte. Besteak beste, eta erretaularen ikonografia berezia aintzat hartuta, Agustindarren komentuekin izan zezakeen harremana. Edonola ere, plazaratu dituzte datuak oso aberatsak dira. Erretaularen testuinguru historiko-ekonomikoa finkatzen lagundu dute eta artelan trafikoa hau etorkizunean sakondu daitekeen gaia dela uste dugu.

Argi gehiago lortu dute beraien bigarren galderan: erretaula non eta nork egin zuen jakite aldera hain zuzen ere. Bilduma aldizkari honetan 23. Zenbakian plazaratu zen ikerkuntza batek hein batean jorratu bazuen ere, argitalpen berri honi esker artelana zein garaitan eta non egin zen zehazki jakin dugu. Helburu hau lortzea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula! Datarena da, ezbairik gabe, informaziorik bitxiena, muturren aurrean izan baititugu denbora honetan guztian: Ama Birginak esku artean duen deboziozko liburuan margoturik baitzegoen. Zalantzarik balego, Pascal Freiture-k dendrokronologia azterketen inguruan ematen dituen azalpena, ondorio horiek berretsi ditu.

Erretaularen egileei degokienez, bigarren kapitulu bezala dagoen Catheline Périer-D'Iteren-en idatziak agerian uzten du, beste behin ere, koordinatu den ikerketaren aberastasuna, metodología bikaina eta atzetik izan duen ikaragarritzko lana. Izan ere, Europan zehar barreitutako hainbat erretaula flandiarretan agertzen zaizkigun irudiak, motiboak eta hainbat teknika alderatu behar izan dira

ondorio garbi batera iristeko. Bakarka eginez gero, lan oso zaila eta askoz luzeagoa suertatuko zen; liburuak beraz, adituz osatutako lantaldeak erakutsi du elkarlanean zer fruitu bikain lor daitezkeen. Honi esker, erretaula Bruselako tailer famatu batean burutako lana dugula ondorioztatu dute.

Maite Barriok berak polikromiari buruz idatzitako lerroek zein Jana Sanyovak laka gorrien inguruan egindako aipamenek, brabantiar egiletasuna berretsi egin dute. Jean Albert Glarigny-k berriz, erretaula osaten duten oholak neurtuz eta egurrean agertzen diren hamaika markak aztertuz, material hori basotik atera eta itxura emateko teknika ezberdinak azaldu dizkigu.

Hitz gutxitan esanda, guztiek Erreterriak gordetzen duen artelan preziatu honen balioa dagokion lekuan jarri dute.

Gure zorionik beroena, beraz ikerkuntza eta zaharberritzea burutu duten egile guztiei, eta lan hau argitaratzea posible egin duen Gipuzkozko Foru Aldundiari. Bejondeiela!

---

Iago Irixoa Cortés